EUSKAL HERRIKO AGINTARITZAREN ALDIZKARIA

BOLETÍN OFICIAL DEL PAÍS VASCO

Itundutako posta–ordaina: 8/98

Internet
www.euskadi.net

Franqueo concertado: 8/98

Administrazioa: Donostia kalea, 1
Legezko Gordailua: VI – 286 – 78 – VITORIA–GASTEIZ

Administración: c/ Donostia–San Sebastián, 1
Depósito Legal: VI – 286 – 78 – VITORIA–GASTEIZ

Bestelako Xedapenak

INGURUMEN ETA LURRALDE ANTOLAMENDU SAILA

6638

193/2008 DEKRETUA, azaroaren 18koa, Laudioko Udalak, nahitaez desjabetzeko, «Zenagortagana herri-erabilerarako 77 zenbakidun mendi-bidea egokitzeko proiektua» gauzatzeko behar ziren ondasun eta eskubideak lehenbailehen hartu behar direla adierazteko dena.

Laudioko Udalak 2007ko azaroaren 22an izandako bilkuran erabaki zuen «Zenagortagana herri-erabilerarako 77 zenbakidun mendi-bidea egokitzeko proiektua» gauzatzeko behar ziren ondasun eta eskubideak lehenbailehen hartzeko legezko izapideei ekitea; erabaki horren baitan zegoen proiektuak eragindako ondasun eta eskubideak herri-erabilerarako zirela adieraztea eta horien zerrenda banakatua jendaurrean jartzeko erabakia. Beraz, berriro jarri ziren jendaurrean. Ondoren, alkatetzak 2008ko irailaren 17an emandako 2331 Dekretuaren bidez ebatzi zen Eusko Jaurlaritzari eskatzea nahitaezko desjabetzearen eraginpean dauden ondasun eta eskubideak lehenbailehen hartu beharrekoak direla adieraz dezala, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legearen 52. artikuluan ezarritakoari dagokionez.

Lehenbailehen hartu beharreko ondasun eta eskubideak banakatuta eta xehatuta agertzen dira espedientean jasotako zerrendan, zeintzuk diren jakiteko beharrezko datuekin. Zerrenda hori jendaurrean jarri zen zegokion garaian eta, administrazio espedientean adierazten denez, alegazio batzuk aurkeztu eta ebatzi ziren.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO

6638

DECRETO 193/2008, de 18 de noviembre, por el que se declara de urgencia la ocupación por el Ayuntamiento de Llodio, a efectos de expropiación forzosa, de los bienes y derechos afectados por el «Proyecto de acondicionamiento de la pista del monte de utilidad pública n.º 77 Zenagortagana».

El Ayuntamiento en sesión celebrada el día 22 de noviembre de 2007, acordó iniciar los trámites legales para la aprobación del expediente de expropiación forzosa para la ocupación de los bienes y derechos afectados por el «Proyecto de acondicionamiento de la pista del monte de utilidad pública n.º 77 Zenagortagana», entendiéndose implícita la declaración de utilidad pública e incluyéndose en el citado acuerdo la relación individualizada de bienes y derechos de necesaria ocupación, siendo sometida nuevamente al trámite de información pública. Posteriormente, mediante Decreto de Alcaldia-Presidencia n.º 2331 adoptado en sesión celebrada el día 17 de septiembre de 2008, se acordó solicitar al Gobierno Vasco la declaración de urgencia en la ocupación de los bienes y derechos afectados por el expediente expropiatorio a efectos de lo previsto en el artículo 52 de la Ley de Expropiación Forzosa, de 16 de diciembre de 1954.

Los bienes y derechos a los que se concreta la declaración de urgente ocupación han quedado determinados e individualizados con los datos suficientes para su identificación en la relación confeccionada al efecto y que obra en el expediente, la cual, en su momento, fue sometida a información pública, habiéndose presentado algunos escritos de alegaciones, que fueron resueltos según consta en el expediente administrativo.

PAPER BIRZIKLATUA %100 PAPEL RECICLADO 100%

Zerbitzu teknikoek ikusi dutenez, hirigintza arloan ez dago espedientea izapidetzeko inolako oztoporik.

Ondasun eta eskubide horiek hartzea luza ezinezkotzat jotzen da honako arrazoi hauengatik:

Herri-erabilerarako bide bat izanik, mendira sartzeko dauden arazo larriak konpondu nahi dira; izan ere, Asudio auzora joateko gaur egun dagoen errepidea ezin da egurbide bezala erabili, eta horrek arazo ugari sortzen ditu. Mendi-bidearen tarte asko mehartu egiten dira eta horietara iristea oso zaila da; arazo hori konpondu egin nahi da. Zabalera berdindu eta zorua egokituko da; partikularren sailetarako eta ondoko pistetarako sarbideak egingo dira; bazterguneak egingo dira bi ibilgailu gurutzatu behar direnerako eta bi norabideko zirkulazioa ahalbidetzeko. Horrek guztiak basoko lanak erraztuko ditu, eta suteak saihesteko ere balioko du.

Adierazitako guztiarengatik, eta dagoeneko igaro den denbora kontuan izanda, ondasun eta eskubide horiek hartzea luza ezinezkotzat jotzen da.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen 26.1.f) artikuluan xedatzen denaren arabera, Eusko Jaurlaritzari dagokio nahitaez desjabetu beharreko ondasun eta eskubideak lehenbailehen hartu beharrekoak direla adieraztea, nahitaezko desjabetzeak honako hauek hartzen dituenean: burutze-unitate osoak, lurraldearen hirigintza-antolamenduari dagozkion sistema orokorrak edo antolaketa horren elementuren bat eta hirilurzoruan egin beharreko banakako egintzak. Goian aipatutako lege horrek 26.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, orduko Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro sailburuari zegokion horretarako proposamena Jaurlaritzaren Kontseiluari aurkeztea.

Ondorioz, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu sailburuaren proposamenez eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2008ko azaroaren 18an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hau

XEDATU DUT:

Artikulu bakarra.– Nahitaezko Desjabetzari buruzko Legearen 52. artikuluan eta Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko Legearen 26.ean xedatutakoari jarraituz, aditzera ematen da Laudioko Udalak lehenbailehen hartu behar dituela «Zenagortagana herri-erabilerarako 77 zenbakidun mendi-bidea egokitzeko proiektua» burutzeko beharrezkoak diren ondasunak eta eskubideak, nahitaezko desjabetzea egiteko. Berariaz hasitako espedientean jasotako zerrendan daude zehaztuta eta banakatuta ondasun eta eskubide horiek.

Vitoria-Gasteizen, 2008ko azaroaren 18an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Ingurumen eta Lurralde Antolamendu sailburua,
ESTHER LARRAÑAGA GALDOS.

Los Servicios Técnicos han observado que no existe obstáculo urbanístico para la tramitación del expediente.

Se estima inaplazable la ocupación por las siguientes circunstancias:

Se trata de un camino de uso público que pretende solucionar los graves problemas de acceso al monte y que deja sin efecto como vía de saca la actual carretera de acceso al Barrio de Asudio, con los problemas que ello generaba. Se pretende dar solución a la situación actual de encajonamiento de la pista en muchos tramos y la mala accesibilidad. Se regulariza el ancho y se mejora el firme, dotando a la pista de accesos a parcelas particulares y pistas adyacentes, asi como la creación de apartaderos que permitan el cruce de vehículos facilitando de este modo la circulación en los dos sentidos por esta vía. Todo ello facilitará la realización de labores selvícolas y la prevención de incendios.

Por todo lo expuesto, se considera necesario y urgente proceder a ocupar los terrenos afectados por el expediente expropiatorio a la mayor brevedad posible.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 26.1.f) de la Ley 4/1990, de 31 de mayo, de Ordenación del Territorio del País Vasco, corresponde al Gobierno Vasco acordar la declaración de urgencia de la ocupación de los bienes y derechos afectados por la aplicación de la expropiación forzosa a unidades de ejecución completas, sistemas generales de la ordenación urbanística del territorio o a la de alguno de sus elementos o para la realización de actuaciones aisladas en suelo urbano, correspondiendo al Consejero del entonces Departamento de Urbanismo, Vivienda y Medio Ambiente, de acuerdo con lo establecido en el artículo 26.2 del mismo texto legal, elevar al Consejo de Gobierno la correspondiente propuesta.

En su virtud, a propuesta de la Consejera de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su reunión celebrada el día 18 de noviembre de 2008,

DISPONGO:

Artículo único.– De conformidad con lo dispuesto en los artículos 52 de la Ley de Expropiación Forzosa y 26 de la Ley de Ordenación del Territorio del País Vasco, se declara urgente la ocupación por el Ayuntamiento de Llodio, a efectos de expropiación forzosa, de los bienes y derechos concretados e individualizados en la relación obrante en el expediente instruido al efecto y necesarios para la ejecución del proyecto de acondicionamiento de la pista del monte de utilidad pública n.º 77 Zenagortagana.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 18 de noviembre de 2008.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Consejera de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio,
ESTHER LARRAÑAGA GALDOS.